



## 1. ZER DA ELKARTE BAT?

Pertsona fisiko edo juridikoen talde bat da:

- helburu berberak dituztenak, kezkak edo zaletasunak ere berdinak dituztelako.
- helburu horiek lortzeko talde jarduera jakin bat garatu nahi dutenak.
- antolamendu demokratikoa dutenak, jarduera horiek egiteko.

## 2. NOIZTIK HARTZEN DU NORTASUN JURIDIKOA ELKARTE BATEK?

- Eraketa-akta egiten denetik, elkarteak berezko nortasun juridikoa du, bazkideen nortasunetik independentea dena, eta jarduteko gaitasunik zabalena eta osoena ere badu.
- Publikotasunaren ondorioetarako baino ez da inskribatzen elkartearen Erregistroan. Inskripzioak berme batzuk ekartzen ditu, bai elkartearendako berarendako, bai bazkideendako, bai hirugarrenenendako.

## 3. NOLA ERATZEN DA ELKARTE BAT?

a) **Eraketa-bilkura:** Interesa dutenak (bazkide sustatzaileak) elkartu egiten dira eta elkartearen eratzeari erabakitzen dute. Erabaki hau ERAKETA-AKTA izeneko agiri publiko edo pribatu batean gauzatzen da.

b) **Estatutuak onestea.** Sustatzaileek, bilkura berean eta elkartearen eratzeko erabakian, funtsezko arau batzuk (ESTATUTUAK) onartzen dituzte, Elkartearen etorkizuneko bizitza arautzearen.

c) **Behin-behineko organoak hautatzea.**

- Biltzar eratzzaileak lehenengo ZUZENDARITZA BATZORDEA aukeratuko du: BEHIN-BEHINEKOA izanen da eta haren eginkizuna izanen da elkartearen inskribatzea eta, ondoren, hura zuzentzea Bazkideen Batzar nagusiaren lehenengo bilerara arte.



- Gutxienez bi lagunek osatuko dute: lehendakariak eta idazkariak. Lehenbiziko zuzendaritza batzorde horrek ez du zertan izanik Estatutuetan deskribatutakoa bezalakoa, komenigarria baita behin betikoa zabalagoa izatea eta bazkide berriek ere parte hartzeko modua aurreikustea.

#### **4. ZENBAT PERTSONA BEHAR DIRA ELKARTE BAT ERATZEKO?**

Elkarte bat eratzeko gutxienez ere hiru pertsona behar dira, fisikoak zein juridikoak izan.

#### **5. ZER PERTSONA MOTA IZAN DAITEKE ELKARTE BATEKO BAZKIDE?**

- Pertsona fisiko eta/edo juridikoak, era berean.
- Pertsona fisikoen kasuan, elkartzeko eskubidea erabiltzeko gaitasuna izan behar dute.
- Pertsona juridikoen kasuan, legez eratuta egon behar dute eta, hala behar bada, dagozkien erregistroetan inskribatuta egon behar dute (merkataritzakoa, kooperatibena, etab.). Gainera, elkartzeko nahia adostu behar dute, beren arauari jarraikiz adostu ere, eta pertsona fisiko bat izendatu behar dute elkartean ordezkari ditzan. Horregatik, eraketa-aktarekin batera, erakunde sustatzailearen organo eskudunak modu baliozkoan harturiko erabakiaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Hartan, elkartearen eratu eta bertan parte hartu nahi dutela jaso behar da, eta zehaztu beharko da zer pertsona fisiko izendatu den ordezkari.
- Elkarteak sustatu eta laguntzarren, erakunde publikoak bazkide izan daitezke beren eraketa-arauetan eta/edo gainerakoetan debekaturik ez badute. Halakoetan, gainerako bazkideen baldintza beretan izanen dira bazkide, baina, nolahi ere, elkartearen funtzionamenduan nagusitu gabe.
- Estatutuek bestelako betebeharrak edo/eta baldintza batzuk ezartzen ahal ditu bazkide izateko.
- Nor bere borondatez egiten da elkarte bateko bazkide, eta bazkide hori ezin da eskualdatu heriotzagatik edo doan, Estatutuek besterik xedatzen dutenean izan ezik.



## 6. ADINGABEAK ELKARTE BATEKO BAZKIDE IZAN DAITEZKE?

- 14 urtetik beheitikoak ezin dira elkarte bateko bazkide izan, salbu eta haur, gazte edo ikasleen elkarte bada.
- 14 eta 18 urte bitartekoak bazkide izaten ahalko dira, haien gaitasuna ordeztu behar dutenen (guraso edo tutoreen) baimena izanez gero (agiri bidez egiaztatua), salbu eta legez emantzipatuta badaude.

## 7. ATZERRITARREK ELKARTE BAT ERA DEZAKETE?

- Elkarte bat osatzen duten guztiek beren nazionalitatea egiaztatu behar dute.
- Atzerritarrek elkarte baten eraketan parte har dezakete, Espainian bizi direla edo bertan daudela egiaztatuz gero.

## 8. BAZKIDE MOTA EZBERDINAK EGON DAITEZKE ELKARTE BATEAN?

- Estatutuetan bazkide mota ezberdinak ezartzen ahal dira.
- Hauek dira bazkide mota nagusiak:
  - a) Bazkide fundatzaileak: elkarte eratzeko bileran parte hartu dutenak. Oro har, izendapen hori gehienbat ohorezkoa da.
  - b) Bazkide osoak: ez dute elkarte eratzeko bileran parte hartu, ondotik bazkide tu dira.
  - c) Bestelako bazkide mota batzuk: Ohorezkoak (ohorezko izendapena da eta jende entzutetsuari eman ohi zaio); Babesleak (elkarteari baliabide ekonomikoak ematen dizkietenak); Laguntzaileak (elkartean noizean behin aritzen direnak, beren jakintza, lana, esperientzia, dirua eta abar eskainiz).
- Estatutuetan zehaztuko dira bazkide-mota guztiak, eta baita bazkide mota bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak ere, araubide guztiek juridikoki orekatuta egon beharko dutelarik.

## 9. ZER ESKUBIDE DITUZTE BAZKIDEEK?

Oro har, bazkideek betebeharrak hauek dituzte:



- a) Zuzendaritza batzordeko kide izateko, batzar nagusiak modu baliodunean aukeratuz gero.
- b) Elkaratearen gobernu eta ordezkari organoen osakerari buruzko informazioa jasotzeko.
- c) Bere kontrako diziplina neurriak hartu baino lehen entzuna izateko eta neurri horiek hartzeko gertaeren berri izateko. Zehapena dakarren erabakia arrazoietan oinarrituko da.
- d) Batzar nagusietarako deialdia jasotzeko, eta haietan botoa eta hizpidea izateko, Estatutuekin bat.
- e) Elkaratearen organoek hartutako erabakiak legearen edo estatutuen kontrakoak direla uste izanez gero, haiek aurkaratzeko.
- f) Zuzendaritza-batzordeari eskatuta, elkaratearen edozein agiri ikusteko, betiere datu pertsonalak babesteari buruzko araudiari jarraikiz. Hauxe da elkaratearen dokumentazioa: kontabilitatea, eta batzarren eta zuzendaritza-batzordearen bileren aktak.
- g) Horiez gain, Estatutuetan ezartzen direnak.

## 10. ZER BETEBEHAR DITUZTE BAZKIDEEK?

Elkarte motaren arabera, helburuak zein diren, desberdinak izanen dira bazkideen betebeharrak. Estatutuetan zehaztu beharko dira. Oro har, bazkideek honako betebeharrak dituzte:

- a) Entitatearen helburuekin bat etortzea eta jardueretan laguntzea helburu horiek bete daitezten, Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion kuota, derrama eta bestelako ekarpenak ordainduz bereziki.
- b) Estatutuak betetzea, eta gobernu eta ordezkari organoek modu baliodunean hartutako erabakiak onartu eta betetzea.
- c) Karguetan aritzea, haiek betetzeko hautatuak izanez gero.

Aurrekoez gain, Estatutuetan ezarritako gainerako guztiak dira bazkideen betebeharrak.

## 11. ZER BALDINTZA BETE BEHARRAK DITU ELKARTE BATEN IZENAK?



a) Ez dira onartuko legeen kontrako esaerak dituzten izenak edo pertsonen oinarritzko eskubideak urratzen ahal dituztenak.

b) Federazioaren izenean ez da egonen oker edo nahasterik sortzen duen termino edo adierazpenik haren identitate, mota edo izaeraren gainean; beste pertsona juridikoen -elkarteak izan edo ez- hitz, kontzeptu edo ikur, akronimo eta antzekoak erabiliz, batez ere.

c) Elkartearen izena ezin da izan beste batek duena, ezta antzekoa ere baldin eta horrek nahasbiderik sortzen badu,

- erregistro honetan aldeztatik izena emanda dagoen beste batekin.
- lehendik dauden beste edozein pertsona juridiko publiko edo pribaturekin, Espainiako nazionalitatekoak izan edo ez.
- pertsona fisikoekin, interesdunak edo haren oinordekoek berariazko baimena ematen dutenean izan ezik.
- Erregistratutako marka ezagunekin, salbu eta haren titularrak berak eskatzen badu, edo horretarako baimena emanaz gero.

d) Izenak latindar alfabetoko letrez osatuta egon beharko du, euskaraz edo gaztelaniaz.

e) Izenak zifrak baditu, zenbaki arabiar edo erromatarretan soilik adierazi ahal izanen dira.

f) Elkartearen izenak gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntzaren bateko hitzik baldin badu, Erregistroak itzulpenaren egiaztagiria eskatu ahalko du, edo haren esanahia idatziz argitzeko.

## **12. ZEIN ELKARTE EZIN DIRA ELKARTEEN ERREGISTROAN INSKRIBATU?**

Edozein jarduera sozial egiten duten elkarteek eman dezakete izena, hauek izan ezik:



- Politikoak.
- Sindikatuak.
- Enpresa erakundeak.
- Erljio elkarte eta komunitateak.
- Kirol federazioak.
- Ondasun-erkidegoak eta jabeen erkidegoak.
- Sozietateen gaineko kontratuaz gobernatutako entitateak.
- Kooperatibak.
- Mutualitateak.
- Aldi baterako enpresa elkarteak.
- Interes ekonomikoko elkarteak.

### 13. ZER ONDORIO DITU ELKARTEEN ERREGISTROKO INSKRIPZIOAK?

Elkarte guztiek dute erregistroan inskripzioa egiteko eskubidea. Inskripzioak, oro har, honako ondorio hauek ekartzen ditu:

- Publikotasunari dagozkionak: jakitera ematen dira elkartearen eraketa eta Estatutuak.
- Bermeari dagozkinak: Erregistroan dauden datuen gaineko bermea dago, bai elkartearekin harremanak dituzten hirugarrenendako eta bai bazkideendako.
- Zergei dagozkionak: zerga abantaila batzuk ekar ditzake.
- Dirulaguntzei eta kontratazioari dagozkionak: anitzetan inskripzioa beharrezkoa da finantzaketa publikoa lortzeko edo kontratu eta hitzarmen publikoen adjudikazioduna izateko.

### 14. ELKARTEEN ZEIN ERREGISTROTAN EGIN BEHAR DUT NIRE ELKARTEAREN INSKRIPZIOA?

#### A. Elkarteen Erregistro Nazioalean:

- Estatu mailako elkarteak, federazioak, konfederazioak eta elkarteen batasunak, eta beren jarduerak batez ere bi autonomia erkidego edo gehiagoren lurraldeetan egiten dituzten guztiak.



- Espainian modu egonkorrean edo iraunkorrean jarduerak egiten dituzten atzerriko elkarteetan ordezkaritzak.

## **B. Nafarroako Elkarteetan Erregistroan:**

Beren eginkizunak Nafarroako Foru Komunitatean hein batean edo osorik betetzen dituzten elkarteak.

### **15. ZER BALDINTZA BETE BEHAR DIRA ELKARTE BAT INSKRIBATZEKO?**

- Legez eratua egon behar da.
- Eskaera aurkeztu behar da, dokumentazio erduekin eta behar den informazio guztiarekin batera (Nafarroako Gobernuaren webgunean eskura dago dena).
- Inskripzio-tasa ordaindu behar da.

### **16. ZER EDUKI IZAN BEHAR DU ELKARTE BATEN ERAKETA-AKTAK?**

- Fundatzaileen izen-deiturak, pertsona fisikoak direnean, eta sozietatearen izena pertsona juridikoak direnean, nazionalitatea, helbidea eta NAN zenbakia edo NEA zenbakia (Nortasuna Egiartzatzeko Agiria).
- Sustatzaileek elkarte bat eratzeko duten asmoaren adierazpen bateratua (erabakia).
- Elkartearen izen zehatza; estatutuetan agertzen den izen berbera izan beharko du.
- Elkartearen gobernatzeko estatutuen onespena.
- Behin-behineko gobernu-organoen kideen izendapena (nahitaez fundatzaileek osatuko dituzte, fundatzaile guztiek edo haietako batzuek).
- Fundatzaileek elkarteari buruz hartutako beste itun batzuk.
- Eraketa akta egin den tokia, eguna, eta fundatzaileen sinadura.

### **17. ZER HELBURU IZAN DITZAKE ELKARTE BATEK?**

Helburuak dira elkarteak lortu nahi dituen xedeak, hau da, zer arrazoirengatik eratu den elkartearen helburuak.



1. Bazkide guztienak izanen dira, eta interes orokorrekoak edo partikularrekoak izan daitezke.
2. Sozialak, kulturalak, kiroletakoak, garapenerako lankidetzakoak, hezkuntzakoak, aisialdikoak, auzoari dagozkionak, genero berdintasunekoak, soziosanitarioak eta gisakoak izan daitezke.
3. Ez dira nahasiko helburuak lortzeko egiten diren jarduerekin. Estatutuetan zehatz-mehatz azaldu behar dira bai helburuak eta bai jarduerak.
4. Zehaztasuna eskatzen den arren, komenigarria da estatutuetan helburuak gehiegi ez zehaztea, geroago Elkartearen jarduera-eremua zabalduz gero, estatutuetan aldaketarik egin behar ez izateko.
5. Legez kontrakoak dira delitutzat jotako helburuak dauzkaten edo halako baliabideak erabiltzen dituzten elkarteak.
6. Debekatuta daude elkarte sekretuak eta paramilitarrak.

## 18. ZER JARDUERA IZAN DITZAKE ELKARTE BATEK?

1. Elkarteek beren helburuak betetzeko beharrezkotzat jotzen dituzten jarduerak egin beharko dituzte (adibidez, bilerak, hitzaldiak, kultur, kirol ekitaldiak, etab.).
2. Horretarako, jarduera horiek arautzen dituen legeria berariazkoari lotuko zaizkio.
3. Elkartearen jarduerak ez dira helburuekin nahasi behar, eta jarduerak, berriz, ez dira nahasi behar elkarteak baliabide ekonomikoak lortzeko egiten dituen jarduketekin.
4. Elkarteek jarduera ekonomikoetatik lortutako etekinak, zerbitzuen prestaziotik datozenak barne, beren helburuak betetzeko baizik ez dira erabiliko, eta ezin izanen dira inola ere banatu ez bazkideen artean, ez haien ezkontideen artean, ez antzeko harreman afektiboa izanik haiekin bizi diren pertsonen artean, ez haien senideen artean, eta ezin izanen zaizkie dohainik laga irabazi asmoko inongo pertsona fisiko edo juridikori.

## 19. ZEIN DA ELKARTE BATEN LURRALDE-EREMUA?

- Elkarteak bere jarduera gehienak egiten dituen eremu geografikoa da.





- Nafarroako Elkarteen Erregistroan inskribatu behar dira tokian-tokian diharduten elkarteak (adibidez, Iruñeko udal mugartean), edo Nafarroako Foru Komunitate osoan dihardutenak. Lurralde eremua berariaz adierazi behar da estatutuetan.

## 20. ZER IRAUPEN DU ELKARTE BATEK?

Bazkideek ezarriko dute iraupena. Denbora jakin bat zehaztu daiteke, edo denbora mugagaberako eratu. Dena dela, estatutuetan jaso beharko da.

## 21. ZER EZAUGARRI IZAN BEHAR DITU ELKARTE BATEN EGOITZAK?

- Espainiako Estatuaren lurraldean egon behar du, estatutuetan ezartzen den tokian. Toki hori bere ordezkartza-organoaren egoitzarena izan daiteke, edo jarduera gehienak egiten dituen lekua.
- Elkartearen egoitza bazkide baten etxean egon daiteke.
- Elkarteak berea duen lokalik ez badu, agiri bat aurkeztu beharko du egoitza soziala dagoen higiezinaren jabea den pertsonaren edo erakundearen baimena duela erakusteko, edo, bestela, lehendakariak adierazi beharko du elkarteak lokal hori egoitza sozial gisa erabiltzeko ahalmena duela. Hala ere, erakunde edo entitate publiko edo pribatu batena den egoitza sozial bat finkatzen badu, Erakundea edo entitatea horrekin ados dagoela erakusten duen egiaztagiria eskatuko dio elkarteari; halakoetan, ez da baliozkotzat hartuko lehendakariaren aitopene hutsa.
- Egoitza sozialaz gain, beste helbide bat ere ezar daiteke, jakinarazpenetarako. Bi helbideak estatutuetan jasoko dira.

## 22. ZEIN DIRA ELKARTE OROREN FUNTSEZKO ORGANOKAK?

- Elkarte orok, nahitaez, batzar nagusi bat izan behar du, baita ordezkartza organo bat ere, zuzendaritza batzordea deitu ohi dena.
- Batzar nagusia elkartearen gobernurako eta haren nahia adierazteko organoa da. Zuzendaritza batzordea, berriz, elkartearen ordezkartza, administrazio eta kudeaketa organoa da.
- Estatutuetan ezarriko da bi organo horiek nola arautzen diren.



- Elkarateek beste organo batzuk ere finkatu eta arautu ahal izanzen dituzte: lan-organoa (batzordeak, lantaldeak, atalak); kontsulta-organoa (elkarteari edo zuzendaritza batzordeari aholkuak emateko); kudeatzaileak (elkartea oso handia denean edo jarduera ugari eta/edo konplexuak egiten dituen); etab. Nolanahi ere, estatutuetan arautu behar da zein diren eta nola funtzionatuko duten.

### 23. ZER DA BATZAR NAGUSIA?

- Batzar nagusia gobernu-organoa gorenena da, elkaratearen erabakirik garrantzitsuenak hartzen ditu, eta gehiengoaren edo barne-demokraziaren printzipioaren arabera hartzen ditu erabakiak.
- Bazkide guztiek osatzen dute eta elkaratearen erabakirik garrantzitsuenak hartzen ditu.
- Bazkideak baino ezin dira joan batzarrera, eta, noiz edo noiz, kanpoko gonbidaturen bat, informazioa eta/edo aholkularitza emateko.
- Batzar nagusiak bilkura arruntak eta bereziak egiten ahal ditu.
- Batzar nagusi arrunta gutxienez ere urtean behin bildu behar da, aurrekontuak eta kontuak aztertu eta onesteko.
- Batzar nagusi bereziak antolatuko dira egoera dela-eta lehendakariak komenigarria dela irizten dionean, zuzendaritza batzordeak erabakitzen duenean edo bazkideen parte batek idatziz proposatzen duenean. Deialdiaren inguruabar horiek guztiak estatutuetan arautu behar dira; hala ez bada, legez ezarritako ordezkora araubidea aplikatuko da.
- Nolanahi ere, berriaz antolaturiko batzar (berezi) batean onartu beharko dira bai estatutuen aldaketa eta bai elkaratearen desegitea.
- Estatutuetan ezinbestean agertu behar da zein den organo horren arauketa (osaera, eginkizunak, funtzionamendu-arauak, erabakiak hartzeko gehiengoa, etab.).

### 24. ZER DA ZUZENDARITZA BATZORDEA?

- Zuzendaritza batzordea elkartea ordezkatu, administratu eta kudeatzeko organoa da.



- Batzar nagusian bildutako bazkideek askatasunez eta demokratikoki hautatutako kideek osatzen dute, eta haien ordezkariak dira batzarrean hartutako erabakiak zuzendu, kudeatu eta bete daitezten.
- Zuzendaritza batzordean bazkideak baizik ezin dira egon. Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, estatutuetan ezartzen diren beharkizunez gain, honako hauek ere bete beharko dira: adinez nagusia izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea eta egungo legeriak ezarritako bateraezintasunik ez edukitzea.
- Gutxienez hiru kidek osatuko dute.
- Estatutuetan ezinbestean agertu behar da zein den organo horren arauketa (osaera zehatza - zenbat kide eta karguak-, eginkizunak eta kargudun bakoitzaren eginkizunak -lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, diruzaina, etab.-, funtzionamendu-arauak, kideak hautatzeko prozedura, agintaldiaren iraupena, kargu-uzteak, kargu hutsak betetzeko prozedura, ordezkapena, etab.).

## **25. ZER GEHIENGO BEHAR DIRA BATZAR NAGUSIAN ETA ZUZENDARITZA BATZORDEAN ERABAKIAK HARTZEKO?**

### **1. Batzar nagusian.**

Estatutuetan besterik ezarri ezean, honako hauek:

- Batzar nagusiaren erabakiak bertaraturiko edo ordezkaturiko pertsonen gehiengo soilez hartuko dira, aldeko botoak kontrakoak baino gehiago direnean.
- Nolanahi ere, bertaraturiko edo ordezkaturiko bazkideen gehiengo kualifikatua beharko da (hau da, aldeko botoek erdia baino gehiago izan beharko dute, adibidez, bazkideen gehiengo osoa beharko da, edo 2/3, edo 4/5, edo % 60) elkarte deuseztatzeko, estatutuak aldatzeko, ondasunak eskura izan edo besterentzeko eta ordezkaritza organoetako kideak diruz ordaintzeko.
- Oro har, batzar nagusian boto guztiek balio bera dute; beraz, bazkide bakoitzari boto bakarra dagokio. Baldintza jakin batzuetan bakarrik onartuko da botoa haztatzea edo bozkatzeko eskubidea kentzea edo murriztea.



- Funtzionamendu demokratikoaren printzipioa dela eta, lehendakariak ez du kalitatezko botorik izanen; beraz, berdinketa hausteko beste sistema bat ezarriko da.

## 2. Zuzendaritza batzodean.

- Zuzendaritza batzordearen erabakiak estatutuetan ezartzen den gehiengoaz hartuko dira.
- Batzarrean, berdinketarik izanez gero, estatutuetan jaso daiteke lehendakariaren kalitateko botoa.

## **26. ZER DA ELKARTE BATEN ONDAREA?**

- Elkartearen titularitateko ondasun eta eskubide guztiak dira, balio ekonomikoa dutenak; elkartearen eskura daude bere helburuak lortzeko.
- Eurotan adierazi beharko da, eta estatutuetan zehaztu. Ondarerik ez bada, estatutuetan halakorik ez dagoela adierazi behar da.
- Elkartearen ondarea ez da bere bazkideen ondarea eta bazkideek ez dute haren gaineko eskubiderik ezta partaidetzarik ere.
- Honako hauek osatzen dute elkarte-ondarea:
  1. Fundazio-ondarea, hau da, elkartearen eratzeko bazkideek jarritako ondasun eta eskubideak.
  2. Elkartearen bere helburuak betetzeko eskuratzen joaten den gainerako ondasun eta eskubideak.

## **27. ZER BALIABIDE IZAN DITZAKE ELKARTEAK? NOLA KUDEATU BEHAR DIRA?**

1. Baliabide ekonomikoak: elkarteak, bere ondareaz gain, irauteko dauzkan baliabideak dira, eta estatutuetan zehaztu behar da zein diren.



- Kuotak (sarrerakoak, arruntak, apartekoak, derramak, mantentzekoak). Mantentze-kuotak nahitaezkoak dira, haien bidez gauzatzen baita bazkideek elkarte ekonomikoki mantentzeko duten betebeharra.
- Erakunde publiko nahiz pribatuen dirulaguntzak.
- Pertsona natural edo juridikoen dohaintzak.
- Elkarteak bere helburuak betetzeko antolatzen dituen jardueren bidez lorturiko diru-sarrerak.
- Beste edozein, elkarte mantendu eta bere helburuak betetzeko xedea duena.
- Elkarteak lortu asmo dituen guztiak.

## 2. Elkartearen ondarearen eta baliabideen kudeaketa ekonomikoa:

- Elkarteak kontabilitatea eraman behar du, elkartearen ondarearen egoera zehatza zein den jakiteko eta emaitzen, finantza egoeraren eta egindako jardueren berri izateko. Horretarako, aplikatu beharreko arauen arabera kontabilitatea eraman beharko du.
- Elkartearen ondasun guztien inbentarioa egunean egunean eraman beharko du, eta ondasunak kasuan kasuko erregistroetan inskribatu beharko dira.
- Urteko ekitaldi ekonomikoaren itxiera data ezarri beharko da, eta estatutuetan adierazi.
- Komeni da aurrekontu bat izatea, tresna lagungarria baita.

Estatutuetan jaso behar da zein diren elkartearen kudeaketa ekonomikoaren betebeharrak garrantzitsuenak.

## 28. NOLA DESEGITEN DA ELKARTE BAT?

1. Elkarte bat honako arrazoi hauengatik desegiten da eskuarki:

- Bazkideek hala nahi dutelako (horretarako antolaturiko batzar nagusi batean).
- Kode Zibileko 39. artikuluan ezarritako arrazoiengatik.
- Epai judizial batengatik.
- Estatuetan ezarritako gainerako arrazoiengatik.



## 2. Elkartea desegiteak ondorio hauek ditu:

- Zuzendaritza batzordea bertan behera gelditzen da.
- Elkartearen balantzea egin behar da.
- Likidazioaldia ireki beharra, halakorik egin behar bada.
- Gelditzen den ondarea, halakorik baldin badago, estatutuetan adierazi diren helburuetarako ematea.

## 29. NOLA EGITEN DA ELKARTE BATEN LIKIDAZIOA?

1. Elkartea desegiten denean, likidazio epea irekitzen da, eta entitateak nortasun juridikoa gordeko du epe hori bukatzen den arte.

2. Desegiteko unean indarrean dagoen zuzendaritza batzordeko kideak likidatzaile bihurtzen dira, estatutuek besterik ezartzen ez badute edo batzar nagusiak edo desegitea erabakitzen duen epaileak beste batzuk izendatzen ez baditu.

### 3. Likidatzaileei eginkizun hauek dagozkie:

- Elkartearen ondarearen osotasuna zaintzea.
- Egiteko dauden eragiketak amaitzea eta likidaziorako behar diren bestelako eragiketak egitea.
- Elkartearen kredituak kobratzea.
- Ondarea likidatzea eta hartzekodunei ordaintzea.
- Elkartearen soberako ondasunak estatutuetan aurreikusitako xedeetarako erabiltzea.
- Erregistroko idazpenak bertan behera uzteko eskatzea.

## 30. ZER GERTATZEN DA ELKARTE BAT DESEGIN ETA LIKIDATU ONDOREN SOBERAKIN EKONOMIKORIK BADAGO?

- Elkarteren bat zernahi arrazoi dela-eta desegiten denean, eta likidazioaren ondoren soberakinik badago (altzariak eta higiezinak, dirua, etab.), estatutuetan ezarritako helburu horretarako erabili behar da.



- Nolanahi ere, gerakina beti erabiliko da irabazi asmorik gabeko xede edo entitate baterako.
- Gerakina ezin izanen da inoiz bazkideen artean banatu.
- Hala ere, likidazio-fasean, eta estatutuetan berariaz aurreikusita badago, eta kasu horretan baino ez, bazkideei itzuli ahal izanen zaizkie elkarteari egindako ondare-ekarpenak (ez mantentze-kuotak), haietan aurreikusitako baldintzetan, betiere itzulketa horrek hirugarrenei kalterik egiten ez badie.

### 31. EZAR AL DAITEKE PROZEDURA BAT BAZKIDEAK ZEHATZEKO?

- Bazkideek hala erabakitzen badute, prozedura bat ezar daiteke elkartearen helburuen eta estatutuen aurkako ekintzak, jokabideak edo portaerak zehatzeko.
- Zehapen-araubidea estatutuetan agertu behar da, gutxieneko alderdiak bederen (hutsegitez hartzen diren ekintzak, zehapenak zer organok ezartzen dituen etab.), eta elkartearen barne-araubideari buruzko erregelamenduan garatu ahal izanen da: hutsegite-motak, zehapen-motak, mailakatzea, epeak, etab.
- Nolanahi ere, prozeduran beti jaso behar da balizko arau-hausleari alde zuzenetik entzun behar zaiola, egoki iruditzen zaizkion frogak alegatu edo aurkez ditzan, eta hala jasoko da estatutuetan

### 32. ZER DIRA ELKARTE BATEKO ESTATUTUAK?

Elkarte baten funtzionamenduari buruzko arau berezi eta gorena dira.

### 33. ZER ZEHATZU BEHAR DU, GUTXIENEZ, ELKARTE BATEKO ESTATUTUEK?

1. Zer egunetan eta non onetsi ziren.
2. Izena, ezinbestean "elkarte" hitza daukana.
3. Helburuak eta jarduerak.
4. Lurralde esparrua
5. Elkartearen iraupena.
6. Egoitza soziala.



7. Elkartearen organoak: Batzar nagusia eta zuzendaritza batzordea. Eraketa eta eginkizunak.
8. Nork edo zein kargudunek duten ahalmena batzar nagusiaren eta zuzendaritza batzordearen erabakiak ziurtatzeko.
9. Funtzionamendu-arauak batzar nagusiaren eta zuzendaritza batzordearen bileretarako
  - a. Zuzendaritza batzordeko kideak hautatzeko prozedura.
  - b. Lanpostu hutsak betetzeko prozedura (batzordea).
  - c. Zuzendaritza batzordeko kideak ordeztzeko modua, kanpoan eta/edo eri daudenerako.
  - d. Batzordeko karguen iraupena eta kargua uzteko arrazoiak.
  - e. Erabakiak hartzeko eztatidarako modua eta gehiengoa (batzarrean eta batzordean).
  - f. Bileretarako deiak egiteko behar den bazkide-kopurua (batzarrerako, bazkide-kopurua; batzorderako, batzordekide-kopurua). Zenbakitan edo ehunekotan adieraz daiteke.
  - g. Organoak (batzarra eta batzordea) modu baliodunean eratzeko behar den bazkide kopurua.
10. Bazkide izateko beharkizunak eta/edo baldintzak.
11. Bazkide motak (aukerakoa da, baliteke bazkide motarik ez egotea).
12. Bazkideak onartzeko eta bazkide-tza galtzeko prozedura eta zein den erabaki horiek hartzeko organo eskuduna.
13. Bazkideen eskubide eta betebeharrak.
14. Fundazio-ondarea, halakorik baldin badago, aurreikusitako baliabide ekonomikoak, eta kudeaketa ekonomikoa.
15. Desegiteko arrazoiak
16. Zer helburu emanen zaion elkartea desegin ondoko likidazioaren soberakinari.
17. Zehapenen araubidea (halakorik balego).
18. Agiri betebeharrak.

Estatutuetan komenigarritzat jotzen diren gainerako xedapen eta baldintza zilegizkoak ere zehaztu ahal izanen dira, betiere legeen kontrakoak ez badira eta elkartzeko eskubidea eratzten duten printzipioen kontrakoak ez badira.





Estatutuen edukia ezin da ordenamendu juridikoaren kontrakoa izan.

### 34. ORDAINDU BEHAR AL DA ELKARTEA INSKRIBATZEAGATIK?

Bai. Tasa eta prezio publikoei buruzko Foru Legeak tasa bat ezartzen du inskripzio bakoitzeko. Ordainketaren egiaztapena eskaerarekin batera aurkeztuko da, eta zerbitzuen webguneko jarraibideen arabera ordaindu ahalko da. Hortik ordainketa-gutuna deskargatu ahal izanen da eta aukera egonen da ordainketa telematikoa egiteko kontuan kargatuta.

### 35. ERATU ONDOTIK, ZER BETEBEHAR NAGUSI DITU ELKARTE BATEK?

1. IFZ: legez funtzionatzeko, elkarteak, inskripzioaren ondoren, behin betiko IFZ lortu behar du eta faktura eta ordainagiritan agertu beharko du IFZ horrek. Eskaera Foru Ogasunaren bidez izapidetu behar da. Lortu eta gero, Elkarteen Erregistroan eman behar da haren berri.

2. Agiriei dagozkien betebeharrak: elkarteek hiru dokumentu-multzo eraman behar dituzte, egunean egunean eraman ere. Agiri horietan, elkartearen ibilbideari buruzko funtsezko datuak jaso behar dira hauei buruz: elkartearen erabakiak, baliabide ekonomikoen osaera, jatorria eta helburua. Agiri horiek legezko erreferentea dira hirugarrenen eta bazkideen aurrean.

Liburuek paper-formatua izan dezakete, baita formatu elektronikoa ere. Hauek dira nahitaez bete beharreko liburuak:

**1. Akta liburua:** Orri zenbakituak dituen liburu bat da, elkartearen gobernu organoen bilertan landutakoa jasotzekoa. Bereziki, hartutako erabakiak agertu beharko dira. Modu kronologikoan ordenatu behar da liburua.

**2. Bazkideen liburua:** Elkartean bazkidetzen direnen eta elkartearen uzten dutenen erregistroa da.



**3. Kontabilitate liburuak eta inbentarioa:**elkartearen kontabilitateak bidea eman behar du zehatz jakiteko zein den haren ondarea, emaitza eta finantza-egoera eta zer jarduera egin dituen.

### **36. ZEIN DIRA NAFARROAKO ELKARTEEN ERREGISTROAN INSKRIBA DAITEZKEEN EGINTZAK?**

- a) Entitatearen eraketa.
- b) Estatutuen aldaketa.
- c) Zuzendaritza batzordean edozein arrazoiengatik egiten diren berritzeak (agintaldia amaitzea, kargutik kentzea, uko egitea, heriotza, etab.).
- d) Elkarteen eraldaketa.
- e) Elkartea desegitea.
- f) Erregistroko baja, beste erregistro batera aldatzeagatik edo beste arrazoi batzuegatik.
- g) Onura publikoa aitortzea eta ezeztatzea.
- h) Elkartea federazio, konfederazio edo elkarteen batasunetan sartzea, haietan baja hartzea edo haietatik banatzea.
- i) Ebazpen judizialak, baldin eta erregistroan inskribatzekoak diren egintzei eragiten badiete.

### **37. ELKARTEEN ERREGISTROA PUBLIKOA DA?**

Bai, publikoa da haren edukiaren berri izan nahi duten guztiendako, honako hauen edukiei dagokienez: idazpenak, inskribaturiko elkarteen estatutuak eta erregistro-orrien edukiarekin zuzeneko eta berehalako lotura duten dokumentu gordailutuak.



Nolanahi ere, erregistroaren publikotasun horrek datuen babesari buruzko indarreko araudian ezarritako bermeak bete beharko ditu.

### **38. ELKARTEAREN ZORREN ERANTZULEAK DIRA BAZKIDEAK?**

- 1.** Inskribaturiko elkarteek oraingo eta geroko ondasunekin bermatzen dituzte beren betebeharrak. Inskribatu gabeko elkarteen kasuan, eta elkartearen beraren erantzukizuna alde batera utzirik, sustatzaileek erantzukizun pertsonal eta solidarioa izanen dute hirugarrenekin hartutako betebeharren gainean. Kasu horretan, bazkideek erantzunbehar solidarioa dute haietako edonork hirugarrenen aurrean hartutako betebeharrengatik, betiere elkartearen izenean jarduten dutela adierazi badute.
- 2.** Inskribatu gabeko elkarteetako bazkideek ez dute erantzunbehar pertsonalik elkarte horien zorretan.
- 3.** Zuzendaritza batzordeko kideek, eta elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz diharduten gainerakoek dute erantzunbeharra bai elkartearen, bai bazkideen, bai hirugarrenen aurrean, doluz, erruz edo zabarkeriaz jokatzean eragindako kalte eta sortutako zorrenengatik.
- 4.** Orobat, hirugarrenen, elkartearen eta bazkideen aurreko erantzukizun zibila eta administratiboa izanen dute beren eginkizunetan jardunez eginiko ekintza eta omisioengatik, baita bozkatu dituzten erabakiengatik ere.
- 5.** Erantzukizuna ezin zaionean pertsona horietako inori egotzi, guztiak izanen dira erantzule solidario 3. eta 4. apartatuetan aipatu ekintza eta omisioengatik, non ez duten frogatzen ez dutela parte hartu haiek onesten eta betearazten, edo kontra agertu direla.

### **39. ELKARTE BATEKO ESTATUTUAK ALDATU DAITEZKE?**

Bai. Horretarako, batzar nagusi berezia iragarri eta egin beharko da modu baliodunean, xede horretarako berariaz, eta batzar horretan erabakiko da estatutuen aldaketa.



Funtsezko elementuei eragiten dieten aldaketek (ikus **33.** auzia) ondorioak izanen dituzte soil-soilik erregistroan inskribatzen direnetik aitzina, bai bazkideendako eta bai hirugarrenendako. Gainerako aldaketek estatutu-prozeduren arabera onartzen diren unetik beretik izanen dituzte ondorioak bazkideendako; hirugarrenendako ondorioak izateko, berriz, beharrezkoa izanen da inskripzioa egitea.

#### **40. ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEEK KARGUEN ARABERAKO ORDAINSARIRIK JASO DEZAKETE?**

1. Bai, estatutuetan hala aurreikusi bada. Batzar nagusiak erabakiko du ordainsarien zenbatekoa, eta urteko kontuetan adierazi beharko da zein diren.
2. Horrez gain, batzar nagusiak dietak eta gastu justifikagarriak ere ordain daitezen erabaki dezake.
3. Bestalde, estatutuetan zehaztutako moduan eta baldintzetan, ordezkaritza eta gobernu organoetako kideek ordainsari egokia jaso ahal izanen dute organo horietako kide gisa dagozkien eginkizunez bestelako zerbitzuak egiteagatik.

#### **41. ELKARTEAK BATU DAITEZKE?**

- Elkarteak batu edo elkartu ahal izanen dira, betiere beren helburuak hobeki lortzeko batzen dira.
- Horretarako ere, elkarteek lurralde edo sektore batean oinarrituriko federazioak eratu ahal izanen dituzte, eta federazioak, orobat, konfederazioetan elkartu ahal izanen dira, irizpide berberekin.
- Federaturiko eta konfederaturiko pertsonak elkarteak (elkarteak, federazioak) baino ezinen dira izan.

#### **42. ZEIN ELKARTE DEKLARATU AHAL IZANEN DIRA ONURA PUBLIKOKOTZAT?**

1. Kasuan kasuko elkarteen ekimenez, onura publikokotzat jo ahal izanen dira honako baldintza hauek betetzen dituzten elkarteak:



a) Beren estatutuetako helburuek interes orokorra sustatzera jo dezatela.

b) Honelakoak izan daitezela: zibikoak, hezkuntzakoak, zientifikoak, kulturakoak, kiroltakoak, osasunekoak, balio konstituzionalak sustatzekoak, giza eskubideak sustatzekoak, gizarte-laguntzakoak, garapenerako lankidetzakoak, emakumea sustatzekoak, haurrak babestekoak, aukera-berdintasuna eta tolerantzia sustatzekoak, ingurumena babestekoak, gizarte-ekonomia edo ikerketa sustatzekoak, gizarte-boluntariotza sustatzekoak, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babestekoak; arrazoi fisiko, sozial, ekonomikoko edo kulturalen ondorioz gizarte-bazterketako arriskuan daudenak sustatu eta artatzekoak, eta antzeko gainerako guztiak.

b) Jarduera ez dadila mugatu bazkideei mesede egitera, baizik eta zabalik egon dadila bere helburuen arabera eskaturiko baldintzak betetzen dituen beste zernahi onuraduni.

c) Ordainsariak jasotzen dituzten ordezkari-organotako kideek ez ditzatela ordain horiek jaso funts eta dirulaguntza publikoen kargura.

Hala ere, ordainsari egokia jaso ahal izanen dute, estatutuetan zehaztutako moduan eta baldintzetan jaso ere, ordezkari-organoko kide gisa dagozkien eginkizunez bestelako zerbitzuak egiteagatik.

d) Estatutuetako helburuak betetzen direla bermatzeko giza baliabide eta baliabide material egokiak eta antolamendu egokia izatea.

e) Eratuta egotea, dagokion erregistroan inskribatuta egotea, jardunean aritzea eta helburuak benetan betetzea, etenik gabe, eskabidea aurkeztu aurreko bi urteetan.

2. Federazioak, konfederazioak eta elkarten batasunak onura publikokotzat jo ahal izanen dira, baldin eta aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, hala federazioek, konfederazioek eta batasunek, nola federazio, konfederazio eta batasun horietako erakunde bakoitzak.



**Gobierno de Navarra**  
**Nafarroako Gobernua**

Departamento de Presidencia, Igualdad,  
Función Pública e Interior  
Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio  
Publikoko eta Barneko Departamentua

Servicio de Secretariado del Gobierno y Acción Normativa  
Gobernuaren Idazkaritzako eta Araugintzako Zerbitzua  
**Negociado de Asociaciones, Fundaciones  
y Colegios Profesionales**  
**Elkarte, Fundazio eta Lanbide Elkargoen Bulegoa**  
Avda. Carlos III, 2 • Karlos III.a etorb., 2  
31002 PAMPLONA/IRUÑA  
Tel. 848 42 66 45 - 848 42 51 36  
asociaciones@navarra.es

3. Onura publikokotzat jo ondoren, beren alde baliatu ahalko dituzte indarrean dagoen araudiak ezarritako eskubide, onura eta salbuespen ekonomiko, administratibo, zergazko, fiskal eta sozial guztiak.